

## **BERMEO / Idazten Ikasteko Lantegi berria prestatu dute**

### **Izena emateko epea otsailaren 2ra arte izango da GIZ-en edo Udal Liburutegian**

M. Zabalondo

Bermeoko Euskara Sailak, Joxe Miel Barandiaran Udal Liburutegiak eta Gazteentzako Informazio Bulegoak (GIZ), Idazten Ikasteko Lantegi berria antolatu dute, Euskal Idazleen Elkartearen (EIE) laguntzagaz. Izena emateko epea otsailaren 2ra arte izango da, GIZ-en edo Udal Liburutegian.

Bermeon egiten duten bosgarren literatur tailerra izango da. 2002an izan zen lehenengo literatur lantegia eta ordutik urtero antolatu dute, izan duen arrakasta kontuan hartuta.

### **Doako ikastaroa**

Ixabel Millet idazlea izango da literatur lantegiko irakaslea. Aurreko urteetan Pako Aristi, Julen Gabiria eta Yolanda Arrieta bezalako idazleak izan dira. Doako ikastaroa izango da eta ez da adin mugarik egongo. Nahi duenak joateko aukera izango du.

Talde mugatua osatuko dute, gehienez 14 pertsonakoa. Beraz, interesatuek lehenbailehen izena eman beharko dute zehaztutako tokietan.

20 orduko ikastaroa (zortzi aste) izango da; otsailaren 3tik martxoaren 31ra arte burutuko da zapatu goizetan (otsailaren 10ean izan ezik), Udal Liburutegian. Astero ordu bi eta erdiko ikastaroa izango da: 10:30etik 13:00etara.